



**GAIA: SUTEEN AURKAKO BABES  
ESPEDIENTEAK IZAPIDATZEA**

**ASUNTO: TRAMITACIÓN DE EXPEDIENTES DE  
PROTECCIÓN CONTRA INCENDIOS**

Industria Segurtasunari buruzko ekainaren 30eko 81/2020 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko Industriaren azaroaren 12ko 8/2004 Legea garatzen du, eta zenbait alderdi arautzen ditu, besteak beste, Industria Segurtasunari buruzkoak. Dekretuaren helburuen artean dago instalazio teknikoen funtzionamenduaren aurreko administrazio-zereginak murriztea eta sinplifikatzea, eragindako operadore ekonomikoek jarduketak eta erabakiak hartzea errazteko, aldi berean administrazioaren giza baliabideen eta baliabide materialen kudeaketa arrazionalizatuz.

Goian adierazitakoa ezartze aldera, martxoaren 1etik aurrera, suteen aurkako espedienteen izapideak - Industria-eraikinetako instalazioenak zein industrialak ez direnenak telematikoki kudeatuko dira, beraz, eskaera guztiak telematikoki aurkeztu beharko dira, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak horretarako ezarri duen euskarri informatikoan sartuta.

Espero dugu instalazioak izapidetzeko eta kontrolatzeko sistema berriak jarduerak hobetu eta sinplifikatuko dituela, bai eskatzailearen aldetik, bai administrazioaren aldetik,

Besterik gabe,

Donostia, 2021eko otsailaren 26a.

El Decreto 81/2020, de 30 de junio, de Seguridad Industrial, desarrolla la Ley 8/2004, de 12 de noviembre, de Industria de la Comunidad Autónoma de Euskadi, regulando diversos aspectos, entre ellos, los relativos a la Seguridad Industrial. Dentro de los objetivos del Decreto figura el de reducir y simplificar las tareas administrativas previas al funcionamiento de las instalaciones técnicas, al objeto de facilitar las actuaciones y toma de decisiones a los operadores económicos afectados, racionalizando al mismo tiempo la gestión de los recursos humanos y materiales de la administración.

Al objeto de implementar lo arriba indicado, a partir del próximo 1 de marzo, las tramitaciones de expedientes de protección contra incendios, tanto las de instalaciones en edificios industriales como las de no industriales, serán gestionadas de forma telemática por lo que todas las solicitudes deberán presentarse telemáticamente accediendo al soporte informático que el departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente ha dispuesto a tal efecto.

Esperando que el nuevo sistema de tramitación y control de instalaciones redunde en una mejora y simplificación de las actuaciones tanto por parte del solicitante como de la administración,

Sin otro particular,

En Donostia-San Sebastián, a 26 de febrero de 2021

  
Fdo. : Agustin Arostegi

**GIPUZKOAKO LURRALDE ORDEZKARIA**